

Jarduera Plana

2010

Kulturaren Euskal Behatokia



AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	2
1. IKERKETA, HAUSNARKETA ETA KONTRASTEIA	3
2. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA.....	6
3. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK	8



AURKEZPENA

Behatokiaren eginkizuna ez dago kulturaren hainbat alderdiri buruzko informazioa biltzera mugatuta, horretaz gain, informazio erabilgarria lortzeko eta aztertzeko gaitasuna ere izan behar baitu, kultura-sektoreei eta kulturaren esparruko estrategia politikoak zehazteko ardura dutenei orientabideak emateko. Estrategia horren garapenari eta inpaktuari dagokienez, jakintza sortzeko tresna izatea lortu behar du.

Kultura Sailak Jaurlaritzaren kultura-politikaren eredia osatzen duen etorkizun estrategikoa finkatu du. Bederatzi ildo estrategikoren arabera antolatzen da, eta Behatokiak ildo estrategiko horietan lagunduko du, honako eginkizun hauek gauzatzeari garrantzia emanez:

- Kultura-alorraren etorkizuneko joerak atzematea. Informazio hori komunitate zabal bati ematea, informazio fidagarri eta integraturako sarbide erraza ahalbidetuz, kontuan hartuz erabiltzaile potentzialen talde desberdinak bereiztea beharrezkoa dela.
- Kulturari buruzko begirada estrategikoari laguntza ematea, egoeren araberako gorabeheraz haratago doan ikuspegia emango duen informazio- eta azterketa-sistema baten bitartez.
- Hazkunde ekonomikoari eta bizi-kalitateari dagokienez, kultura-industriek duten eginkizunaren ulermen hobea eskaintzea.
- Kultura-industria ekonomiako beste hainbat sektoreekin —esate baterako, industriarekin— eta berrikuntzaren eta sormenaren zirkuitu handiekin izaten ari den lotura identifikatzen laguntzea.

Behatokiak 2010ean gauzatuko duen jardunaren gakoak kulturari buruzko begirada estrategiko eta kritikoa eskaintzean oinarrituko dira, sektore eta politiketarako erabilgarritasuna bateratuko duen begirada bat, hain zuzen ere, kontuan hartuz erabilgarritasun hori jardunen zorrotasunean eta zerbitzuen ikuspenean oinarritzen dela. Praktikan, adierazitakoa lortzeko hainbat gauza egin beharko dira, zehazki, lan-moduak berriz formulatzea, jarduerari integrazio handiagoa ematea (Sailaren politiken input gisa), behaketa eta analisi kualitatiboak egiteari enfasi handiagoa ematea, eta sortutako jakintzaren komunikazioa optimizatzea.

1. IKERKETA, HAUSNARKETA ETA KONTRASTEAK

Dimentsio horrek garrantzi berezia hartuko du etapa honetan, kulturari buruzko begirada estrategikoan laguntzeak eta joera berrietarako arretak lehenetsia baitute.

Gaur egun aztertzeke lehenetsia duten gaiak dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira: sorkuntza-fabrikak, kultura-diplomazia, irakurketa-planak, digitalizazioa eta hark kultura-industrietan duen inpaktua, jabetza intelektuala eta kontsumo berriak, eta azkenik, kulturako % 1 aplikatzea. Eztabaida-taldeak antolatzea, eta hala badagokio, kanpoko adituekiko lankidetzak koordinatzea eskatuko duten ikerketa kualitatiboak helduko diegu.

Ikerketa-esparru horren barruan, kulturaren alorreko joera berriei arreta emango diegu, albisteei, eta beste hainbat erakunde garrantzitsu egiten ari diren argitalpen eta ikerlan berriei arrastoa jarraituko diegu. Beste hainbat gauza ere txertatuko dira, hala nola Behatokiak sektoreekin izandako lan-prozesuen ikaskuntzak, jardunaldietako partaidetzak, gai horietan inplikaturako erakundeak (unibertsitateak eta ikerketa-zentroak) harremanak edota sareko kultura-foroen eta -eztabaiden identifikazioa, besteak beste. Alabaina, guk geuk egindako bilaketek gain, intereseko gaietan orientabideak, iradokizunak eta informazio erabakigarria emateko gaitasuna duten pertsonei (maila desberdinetakoak) irekitako konexio- eta elkarreragin-mekanismoak abian jartzea dakar kultura-joerei erreparatzeak.

Ondoren, Behatokiak berak gauzatuko dituen proiektuak aurkeztuko ditugu:

Sorkuntza-fabrikak

Sorkuntza-fabrikak hirietako sormen-labore nagusietakoak bilakatu dira; horrela, hiriek berrikuntza eta ikerketa artistikorako eta kultura-ekoizpenerako politikaren zati garrantzitsu gisa jartzen dituzte abian horrelako fabrikak. Orobat, sorkuntza-fabrikak sortzaile berri edo gazteei zuzendutako politiken zati garrantzitsu bat ere badira, sortzaile horiek profesionalizaziorako lehen urratsak egiteko aukera gisa ikusten baitituzte horrelako lekuak.

Beste hainbat esperientzia (nazionalak nahiz nazioartekoak) ikertu eta aztertu ondoren, dauden ereduak kategoriak ezarriko dira eta EAEko testuinguruan ezarri beharreko ereduari buruzko erabakiak hartzeko lanean orientazioa emango duten ideiak proposatuko dira.

Teknologia berriak, digitalizazioa eta kultura-industriak

Azken urteotan, batetik, IKTen garapenak, eta bestetik, etxeetako ekipamenduan gailu elektronikoen berriak sartu izanak, herritarrek eduki digitalak eskuragarri izateko aukera areagotu dute, eta horretaz gain, kontsumo-modu eta -ohitura berriak sortu dituzte, kultura-industrietarako merkatu berri bat irekiz, eta aldi berean, negozioaren eredu tradizionalei eraginez.

Esparru horretan, kultura-industria nagusiek (liburua, musika eta ikus-entzunezkoak) eduki digitalen industria gisa izango dituzten erronkei eta aukerei dagokienez bizi duten egoerari eta daukaten jarrerari buruzko azterlan koordinatuko du Behatokiak. Horretarako, lan-talde sektorialen itxurako hurbilketa kualitatiboa proposatzen da. Lan-talde sektorial horietan, adierazitako sektoreetan gertatzen ari diren asimetria eta zirkunstantzia desberdinak diagnostikatu eta balioetsiko dira, trakzio-proiektuak eta sektoreetako jardunbide egokiak identifikatu ahal izateko jakintza eskainiko da, eta azkenik, 2011-2015eko aldirako proiektu posibleak (sektore-alorrekoak/zeharkakoak) proposatuko dira.

Kulturako % 1

Bestalde, "kulturako % 1" deritzon esparruan bildutako funtsen tamainak eta funts horien helmuga aztertzeke xede nagusia izango duen azterlan bat egingo du Behatokiak, eta diagnostiko hori abiapuntutzat hartuz, kultura-esparruari bideratutako finantzaketaren eraginkortasun handiena lortzeko esku hartzeko proposamenen ildoak planteatuko dira.

Planteamendu metodologikoa, bestalde, "Kulturako % 1" deritzona EAEko erakunde nagusietan izandako aplikazioa zehazki irudikatuko duten esku-hartze kuantitatiboen (azterketa), eta kualitatiboen (analisi eta balioespena) konbinazio batekin lotuko da.

Kultura-diplomazia

Kultura-diplomazia terminoa berri samarra da nazioarteko harremanen barruan, baina gero eta presentzia handiagoa du. Herrialde askotako aurkezpen-txartel nagusietako bat dugu kultura, herrialde horiek dituzten bestelako erronkak (politikoak edo nazioartean jarrera hartzekoak) lortzen lagunduko dien irudi bereizgarria sustatzeko ahaleginak egiten baitituzte.

Baina alderdi horretaz haratago, kultura-diplomaziak funtsezko garrantzia duen eginkizun bat du gaur egungo nazioarteko harremanetan. Kultura-elkartrukeei esker, beste herrialdeekiko puntu komunak eta adostasun-puntuak ezagut eta oinarri ditzakegu. Historikoki, nazioarteko harremanen zati "biguntzat" hartzen zen kultura-diplomazia, baina gaur egunean, garrantzi handiagoa hartzen ari da, eta diplomazia tradizionalaren maila berean kokatu da.

Kultura-diplomazia argituko duen txosten labur bat egitea proposatu da. Oraindik orain egindako aurrerapauso nagusiak jasoko dituen dokumentu-laburpen bat abiapuntutzat hartuta, nazioarteko kultura-harremanen kontzeptua eta harreman horiek egungo testuinguruetan duten eginkizuna zehazteko jomuga izango luke txosten horrek.

Gazteak eta kontsumo berriak

Azterlan honek 2009an focus group deritzon bitartez hasitako ikerlan kualitatiboa osatzen du; 2009an hasitako ikerlan horren xedea gazteen kultura-kontsumo eta -praktiken diskurtsoak, zentzuak eta jarrerak ezagutzea da, teknologia berrien eta formatu eta euskarri berrien erabilerari dagokionez. Talde horietan, hainbat interes-gai zehazten ziren, hala nola kontsumoen arlo anitzeko izaera edota aldiberekotasuna, batez ere ludikoa den alderdia (kulturari dagokionez), kulturaz zuzenean gozatzeak ematen dien esperientzia eta zirrara, eta abar. Azterlanaren lehen fasean identifikatu diren elementuetako batzuk dira adierazitakoak, eta sakondu eta aztertu egingo ditugu.

Proiektu horrek Kultura Behatokiaren Sarearen laguntza du (Kultura Behatoki horiekin lan-metodologia adostu da), eta Gazteriaren Behatokiarekin ere koordinatuko da:

Irakurketa-planak eta Jabetza Intelektuala

Bi ikerlan horien kasuan, kanpoko hainbat adituren kolaborazioak eta ekarpenak koordinatuko ditu Behatokiak, eta kolaborazio eta ekarpen horien bitartez, irakurketa-plan bat egingo da, eta baita gaur egun garrantzi handia duen eta eztabaida asko eragiten dituen gai bati buruzko azterketa, hau da, jabetza intelektualari buruzko azterketa egingo da, baita jarrera hartu ere.

2009KO EMAITZAK

Txostenak, azterlanak, ikerlanak, etorkizunerako proposamenak, joerei buruzko txostenak, eta abar

2. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA

Atal honen barnean hartuko dira eragiketa estatistikoei eta azterlanei lotutako proiektuak, gaur egun egiten ari direnak nahiz berriz abian jarriko direnak. Azterlan horien planteamendua kuantitatiboa da funtsean, eta orain arte gabeziak zituzten esparruetan (gastu publikoa eta artxiboak) informazioa sortzeko edota lehendik zeuden informazio-iturriak (enpleguak eta euskara kulturari) interpretazio berrien bitartez esploratzea edo aztertzea dute jomuga.

Informazio-sistema bat sortzeko, ezinbestekoa da informazioa biltzeko, tratatzeko eta kudeatzeko tresnek ezaugarri jakin batzuk izatea, zehazki, sistema elikatzen duten eragileei datuak emateko lana erraztea, eta estatistika-informazioa interesdunen artean hedatzeko prozesua optimizatzea eta sinplifikatzea.

Bestalde, estatistikaren alorrean diharduten beste hainbat erakunderekin lankidetzan aritzea eskatzen du lan horrek, esate baterako, Eustatekin eta Kultura Ministerioarekin.

Artxiboei buruzko eragiketa estatistikoa

2009an, behatokiak Artxiboei buruzko Estatistika jarri zuen abian, Irargi Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroarekin batera. Errolda-eragiketa dugu, Eustatekin lankidetzan egina, eta EAEko artxibo-zerbitzuen egoera islatzen duen ikuspegi bat eskaintzeko eta artxibo horiek dituzten ezaugarriak eta euskal dokumentu-ondarearen kontserbazioaren eta hedapenaren bermatzaile gisa duten eginkizuna ezagutzeko xedearekin. Datuen erreferentziazko aldia 2009a da.

2009KO EMAITZAK

Artxiboei buruzko Estatistikaren emaitzak hedatzeko produktu espezifikoak

EAE n kulturari egiten den finantzaketari eta gastu publikoari buruzko estatistika

2010ean amaituko da 2009aren amaieran abian jarritako estatistika; EAEko Administrazio publiko nagusiak kulturari egiten ari diren ekarpen ekonomikoaren eta inbertsioaren tamainen ikuspegia lortzea da estatistika horren xedea.

Asmo handiko eragiketa dugu estatistika hori, errolda-planteamendu bat eta lagin-planteamendu bat konbinatzen ditu, eta horren bitartez, kulturaren egindako gastu publikoak duen garrantzia ezagutzeko eta neurtzeko informazio xehatua biltzen ari gara, sektoreen, kapitulu ekonomikoen, enplegu publikoaren eta abarren arabera.

2009KO EMAITZAK

EAEen kulturaren egiten den finantzaketari eta gastu publikoari buruzko estatistikaren emaitzak hedatzeko produktu espezifikoak

EAEko kultura-enpleguari buruzko azterlana

Azterlan horren lehen zatia amaitzen ari gara; azterlan horretan, hainbat iturrik jasotako informazioa aztertu dugu, zehazki, honako hauek: batetik, Eustatek, DIRCE direktorioaren bitartez, bestetik, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak (Lan Merkatuaren Errolda kudeatzen du horrek), eta azkenik, Enplegu Institutu Nazionalak (horren datuekin). Informazio horrekin guztiarekin, Behatokiaren estatistiketakoarekin batera, askotariko informazio-mapa bat osatu dugu, eta informazio-mapa hori deszifratzen saiatzen ari gara, kultura-esparruak sortzen duen enplegua balioesteko eta ezagutzeko

Euskararen presentzia kulturaren

Euskarak kulturaren duen presentziari buruzko azterlana bi helbururekin planteatzen da, azterketa eta hausnarketa edukietara nahiz behaketa-metodologiara zuzenduz. Edukiekin lotutako azterlana egin ondoren, euskarak kulturaren duen presentziaren deskribapen kuantitatiboa edukiko dugu, edo beste modu batean esanda, euskarazko kultura-edukien ekoizpenaren egoera, garrantzia eta bilakaera nolakoak diren, zer programatzen eta hedatzen den, non eta nork programatzen duen, zer saltzen den, eta kultura-kontsumoaren ikuspegitik, euskarazko edukiek nolako eskaria duten. Lehen urratsa dugu hori, eta geroago, balioespen bat egin beharko da, datuetatik ondorioztatutako arrazoiengan, ñabarduretan eta irakurketetan sakonduko duen azterketa kualitatibo bat, hain zuzen ere.

2009KO EMAITZAK

Azterlanen emaitzak hedatzeko produktu espezifikoak

3. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK

Behatokiak hartzaile desberdinentzako interesgarria den informazio eta jakintza kantitate handia sortzen du. Jakintza horren transferentzia-ildoek dinamikotasun eta irismen desberdinetako hainbat kanal eta eduki konbinatzen dituzte, interes-talde desberdinetan ardaiztutako estrategia berriak txertatuz; estrategia horiek, honela laburtzen dira funtsean:

KEBren emaitzen hedapena

Kulturaren Euskal Behatokiak berak eta bigarren mailako beste hainbat iturrik kultura-politikan interesgarrienak diren gaiei buruz egindako ikerlan eta azterlanetan lortutako emaitzak hedatzeko eta komunikatzeko ildoari jarraipena egitea. Horren ildotik, 2010erako programan honako esku-hartze hauek planteatu dira:

- **Online argitalpenak**
Behatokiaren argitalpenei dagokienez, produktuak hiru motatakoak dira: Batetik, Behatokiaren Estatistiken eta Azterlanen Bilduma, ikerlanetan ateratako emaitzena, bestetik, 2009ko Memoria eta 2010eko Jarduera Plana, eta azkenik, Kultura 08-09 txostena.
- **Datu-banku estatistikoa (PC Axis)**
Behatokiaren webgunearen bitartez kontsulta daitekeen datu-bankuan progresiboki txertatzea egindako eragiketen emaitzak; datu-banku horri 2008an eman zitzaion hasiera, kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko eragiketaren emaitzekin.
- **Behatokiaren webgunea**
KEBaren barne- eta kanpo-informaziorako sarbide guztiak eguneratzea.

Jakintza albisteen hedapena

Transferentzia-kanal berri horrek aurreko produktuen bitartez (esaterako, Kulturkaria) hasitako filosofiari ekiten dio berriz ere, eta horretaz gain, Sailak horien edukiari eta dinamikotasunari buruz adierazitako nobedadeak sartzen ditu; gai horrek, bestalde, arintasun handiagoa beharko du, batez ere kultura-sektorerako informazioa jasotzeari eta hedatzeari dagokienez. Ildo horretan biltzen dira honako hauek:

- **Informazio- eta jakintza-pilulak**
dinamikotasunez (esaterako, astean 4 edo 6), honako hauek identifikatuko dituzte, besteak beste: azterlanak eta ikerlanak, estatistikak, jardunaldiak eta mintegiak, bibliografia, adituen iritziak, lan- edo enplegu-merkatuarekin lotutako albisteak eta jakinarazpenak (sektorera eta sektoreko profesionalei zuzenduak), prestakuntza, araudia, jardunbide egokiak, laguntzak eta diru-laguntzak, eta abar.
- **Jakintza-aldizkariak**
hilean behingoak izango dira, Kulturkariaren harpidedunei gaikako aldizkariak igorritz, edota sei hilean behingoak, ingelesezko eta frantsesezko aldizkari berezi batekin.

Jarduera hori gauzatzeko, nahi den informazioa eta jakintza egunero bilatzea ahalbidetuko duten informazio-iturri erabakigarriak identifikatu eta sailkatu behar dira lehenik eta behin (egun, lan hori egiten ari gara).

Behatokiak bere begirada parte-hartzailea areagotu du erabiltzaileen tipologia desberdinekin. Horren xedea elkarreraginerako kanal berriak irekitzea da, kontrastatzea eta sektoreekin, profesionalekin, administrazio publikoarekin (besteak beste), eta oro har, gizartearekin lankidetzan estuagoan aritzea ahalbidetuko dutenak.

2009KO EMAITZAK

Argitalpenak, albisteak, aldizkariak, eta abar

Behatokiaren dokumentu bankuaren kudeaketa eta hedapena

Behatokia sortu zenez geroztik igaro diren urteetan, kulturaren esparruan espezializatutako dokumentu-funts bat sortu da; dokumentu-funts horrek paperezko euskarriko nahiz euskarri digitaleko informazio-iturriak eta dokumentazio-iturriak biltzen ditu, eta horren bitartez, jakintza-biltegi garrantzitsu bati hasiera eman zaio. Dokumentu-banku hori finkatzeko eta gehiago hedatzeko, hainbat lan planteatu dira, eragiketei dagokienez nahiz edukiei eta hedapenari dagokienez: sailkapena, kudeaketa, dokumentazio-bankuaren elikadura, eta hiru hilean behingo nobedade-aldizkari bat hedatzea.

2009KO EMAITZAK

Dokumentazio-bankuaren kontsulta- eta hedapen-zerbitzua

Hedapen, kontraste eta hausnarketa ekintzak

Beste hainbat kultura-behatokirekin lan egiteko Sareak, antolatzen ari diren lan-taldeek, emaitzen aurkezpenek eta abarrek hainbat mailatan egiten ari garen dibulgazio-jarduera islatzen dute. Ikertzaileekiko, adituekiko eta egunero kultura-esparruan lan egiten duten pertsonetikiko harremana sustatuko da, horien jakintzatik ikasteko eta Behatokiak duen informazioa aberasteko.

2009KO EMAITZAK

Taldean antolakuntza eta parte-hartzea, jardunaldiak, aurkezpenak, eta abar

Kontsultei eta informazio-eskabideei arreta ematea

Kontsultei eta informazio-eskabideei erantzuna emateko zerbitzua oso garrantzitsua dela deritzo Behatokiak, bere jakintzaren balioa erabiltzaileen eskura jartzea esan nahi baitu.

2009KO EMAITZAK

Lankidetzeta-hitzarmenak, proiektu partekatuak, aholkularitza teknikoko zerbitzua